

KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA (KPSII)

Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoak berekin dakar nor bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzeko; beste batzuekin modu eraikitzailean lankidetzan aritzeko; erresilientziari eusteko; eta bizialdi osoko ikaskuntza kudeatzeko. Honako hauek ere sartzen dira: ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egiteko gaitasuna; aldaketetara egokitzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; bizikidetzaren aurkako jokabideak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalari laguntzea, nor bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatuz erantzukidetasunaren bidez; etorkizunera bideratutako bizitza bat eramateko gai izatea; enpatia adieraztea eta gatazkei heltzea.

LEHEN HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK... ..

ONARRIZKO HEZKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...

KPSII1. Bere emozioak, ideiak eta jokabide pertsonalak ezagutzen ditu, eta tentsio- edo gatazka-egoeretan horiek kudeatzeko estrategiak erabiltzen ditu, zenbait portaera erregulatzeko gai izanik, aldaketetara egokituz eta harmonizatuz, bere helburuak lortzeko.	KPSII1. Bere emozioak erregulatu eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz.
KPSII2. Osasunerako arrisku garrantzitsuenak ezagutzen ditu eta bere ongizate fisiko eta mentalerako ohitura osasungarriak hartzen hasten da.	KPSII 2. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta inguruneak identifikatzen ditu.
KPSII3. Besteen emozioak eta esperientziak ezagutu eta errespetatu ditu, talde-lanean parte hartzen du, esleitutako banakako erantzukizunak bere gain hartzen ditu eta partekatutako helburuak lortzera bideratutako lankidetzaren-estrategia errazak erabiltzen ditu.	KPSII3. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu ekitatiboan banatuz eta onartuz eta estrategia kooperatiboak erabiliz.
KPSII4. Bere ikaskuntza hobetzeko ahalegin eta dedikazio pertsonalaren balioa ezagutzen du, eta jarrera kritikoak hartzen ditu hausnarketa-prozesu gidatuak gertatzen direnean.	KPSII4. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz.
KPSII 5. Epe laburreko helburuak planifikatzen ditu, ikaskuntza autorregulatuko estrategiak erabiltzen ditu eta autoebaluazioko eta koebaluazioko prozesuetan parte hartzen du, bere mugak ezagutzeko eta ezagutza eraikitzeko prozesuan laguntza bilatzen jakinez.	KPSII 5. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelikatutako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitzeko prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.